

Civivox zurekin

Eraiki Sanferminetako zure agertokia edo pertsonaia LEGO®-rekin

Partaidetzarako deialdi berri honek sormena eta ekimena sustatzea du helburu nagusi, Sanferminetako eszena edo diorama bat eraikitze aldera, LEGO®/LEGO® duplo piezak erabiliz.

Eraiki eta zabaldu Sanferminetako edozein une edo pertsonaia birsortuko duen eszena bat, dela historikoa edo egungo jaietakoa, dela fikziozkoa edo fantasiakoa.

- **Helburua:** Sanferminak birsortzeko eszenak eraikitzea, LEGO®/LEGO® duplo piezak erabiliz.
- **Publikoa:** Familiak / Gazteak / Haurrak
- **Hasiera-data:** 2020ko maiatzaren 18a
- **Amaiera-data:** 2020ko ekainaren 7a
- **Prozedura:** Parte hartu nahi dutenek beren pantaila-argazkiak bidaliko dituzte (ahal bada, pantaila osokoak), eta bideo bat ere igor dezakete istorioa, kontakizuna, prozesua edo dena-delakoa azaltzeko, gehienez bi minutukoa. Argazkiak eta bideoak hona bidaliko dira: participacion@redcivivox.es.
- **Bete beharreko datuak:** Irudiaz gain, eta hala bada, bideoarekin batera, datu hauek igorri beharko dira: parte-hartzailearen izen-abizenak, adina eta posta elektronikoa. Era berean, irudia lagatzeko baimena erantsiko da, galeria sortzeko eta, hala bada, zabaltzeko.
- **Parte-hartzaileak:** Adierazi behar da eraikuntzaren egiletzat agertu nahi ote duten.

LEGO®-ko hiru playset zozketatuko dira parte-hartzaile guztien artean,

Argazkien bidez argazki-erakusketa txiki bat eginen dugu, LEGO® eraikuntzak egiteko zaletasuna dute hurrek bidaltzen dituzte dioramak erakusteko. Argitaratutakoan, erakusketa www.pamplonaescultura.es webean egonen da ikusgai.

